ARTZAPE

Getariarron Topagunea

MUNDUBIRA 500: ELKANO FUNDAZIOA "BETIKO" BI IRAKASLEREN ERRETIROA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea

Kaia, 1
20808 **GETARIA**
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com

KATRAPONA

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA 17
☎ 14 07 04



MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA-KAIAPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

11 **Historiaren katebegiak: XX. mende hasierako nekazal mundua**

22-25 **Mundubira 500: Elkano Fundazioa**

4	Zuen txokoa
6	Elan Euskadi
7	Txapakalezka
8	Bi hitzetan
9	Farmaziaren aholkuak
10	Diseinuaz
11	Historiaren katebegiak
12	Komikia
13	Toponimia
14-15	Salberak Itsaskabrari eta Getariako hitza
16	Iritzia: Joxi Erauskin
17	Petriletik ikusmiran
18-21	Elkarrizketa: Valentina Aizpuru eta Balbino Inza
22-25	Erreportajea: Elkano Fundazioa
26	Agenda

2017ko uztaila 173. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz eta Iure Eizagirre.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Cesar Blanco, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Atal hau herritar, talde zein elkarteek zuen ekarpenak egiteko da. Zuen iritzi, gutun, argazki, zorion-agur (bazkide ez direnek 4€), esker on edota agur hitzak argitara ditzakezue. Testuek gehienez 180 hitz izan ditzakete eta ez da irainik onartuko. Ekarpenak jasotzeko azken eguna hilaren 23a izango da, ez da bermatzen egun hori baino beranduago jasotako lanak argitaratzea. Testuak artzape@topagunea.com helbide elektronikora bidali edo Txeruko postontzian utzi daitezke.

Tabakorik Gabeko Eguna

Maiatzaren 31n Tabakorik Gabeko Eguna da. Data honekin lotuta, SEMFYCek —Espainiako Familia Medikuen Elkartea— aspalditik ospatzen du Kerik Gabeko Astea, aurten *Zigarro gutxiago eta kirol gehiago* leloarekin.

Astebetez ekintza asko egiten ditugu Euskadiko osasun zentro gehienetan kontsumoaren eta tabakoarekin lotutako gaixotasunen kontra borrokatzeko.

Iniziatiba medikuei zein pazienteei zuzenduta dago. Osasun Sailak, Osakidetzak, Osatzenek —Euskadiko Familia Medikuen Elkartea— eta AECCk —Espainako Minbiziaren kontrako Elkartea—, besteak beste, parte-hartze, difusio eta babesa eman zioten kanpainari.

Osakidetzak ENSH Globalen hartzen du parte, nazioarteko kerik gabeko ospitale eta osasun zentroen sare batean. Bertan elkarrekin egiten dugu lan, estrategia komun batekin tabakoaren kontsumoa, edozein formatan, jaisteko.

Kerik Gabeko Astean mahai informatiboak, liburuxkak eta txartelak jarri genituen osasun zentroetan, erretzaileak motibatzeko tabakoa lagatzeko. Aurten 18. edizioa izan da eta ekainaren 4an, igandea, ibilaldia antolatu genuen Donostian, Haizearen Orrazitik Tabakaleraraino, tabakorik gabeko bizitza osasungarriagoa sustatzeko.

Komunikabideetan egun horietan aurkeztu zituzten 2013ko Osasun Inkestaren datuak; 2007tik 2013ra erretzaileen ehunekoa jaitsi egin da. Gizonen kasuan, 4 puntuko beherakada izan da —%28tik %24ra— eta emakumeenean 2 puntukoa —%21etik %19ra—. Gainera, 12-19 urteko gazteen artean jaitsiera izan da tabako kontsumoarekin hasteko adinean.

Kerik Gabeko Astean beste inkesta bat ere egin zen, bai gaztelaniaz bai euskaraz. Egoera ezberdinen inguruko iritzi asko jaso zituzten: kotxe barruan umeak daudenean erretzea debekatuta egon behar den, bilgarri generikoak —markarik gabea— tabakoaren kontsumoa jaisten duen, haxixaren eta tabakoaren kontsumoa erlazioanatuta dauden, pasiboki erretzea zer den, erretzeari lagatzeko botikak finantzatu behar diren, eta abar.

Getariako osasun zentroan familia medikuak, erizainak, emaginak eta pediatrak erretzaileei laguntza emateko prest gaude tabakoaren kontsumoa utzi nahi badute. Gainera doako telefono bat dago —944007573—, baita laguntza www.osakidetza.eus webgunean ere. Anima zaitez!

Mavi Carceller Layel —Getariako familia medikua, Osatzen Elkarteko kidea, SEMFYCeko herri medikuen lantaldeko euskal ordezkaria— eta Nerea Beramendi Mendizabal —familia medikuntzako lehenengo urteko egoilarra—.

Oporrak

ARTZAPE aldizkariko erredakzioak oporrak hartuko ditu abuztuan. Ondorioz, abuztuaren 1etik 31era Facebookeko profilean ez da albisterik argitaratuko eta abuztuaren amaieran ez da aldizkaririk argitaratuko. Iraila hasieran itzuliko gara.

Ondo pasa oporrak!

Artzapeko erredakzioa

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

Getaria
AUTOESKOLA

Herrerieta
23 behea

Tel: 943 140 301

ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak



Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

elan euskadi
ONGD - GGKE

Immigrazioa ekintza natural gisa

Lerro hauetan migrazioaren argazki edo irudi egoki baten bila abiatzen gara. Funtsean, ez gatoz bat gizabanakoak migrazioaren zergatiaz duen ustearekin. Batzuetan, migrazioa irudikatzean balio sozial, politiko, ekonomiko edo etikoen eraginetik kanpo geratzen den esparru gisa kontsideratzen da. Migrazioak egungo gizartean izugarrizko garrantzia du, eta komeni da fenomeno hori ahalik eta ongien ulertzea. Hala, migrazioa fenomeno naturaltzat onartzea.

Migrazioa lehiakortasun ekonomiko gisa ikusten du gizartearen zati handi batek, lana kenduko diguten pertsona maltzurtzat hartzen ditugu migranteak. Finean, ikuspegia ez da guztiz okerra, behintzat bizi garen ekonomia lehiakorraren barnean. Beraz, errua ez da kanpotik etortzea edo gu kanpora joatea lan edo baldintza hobeen bila, dugun lehiakortasun inperfektuagatik.

Migrazioa fenomeno natural gisa irudikatu behar dugu, naturako beste animaliengan ere. Instintu natural hau giza espeziearen kontserbazio bulkada bat da, eta ohikoa izaten da bulkada hau bizi garen eta joatea gustatuko litzaigukeen herrialdeen arteko bizitzeko baliabide konparaketan oinarritzea. Gaur egun, teknologiaren garapenak baliabide konparaketa egiteko ahalmena eta aukera muturrera eraman du, are gehiago turismoak edo Internet bezalako baliabideek.

Konparaketa horretan faktore askok eragiten dute, ekonomiak, gizarteak eta eredu politikoak kasu. Egun, baliabide aukeraketan sareko prentsa da nagusia, eta izugarrizko protagonismoa du. Halaber, sare sozialek ere ikaragarrizko indarra hartu dute. Finean, baliabide bilaketa hau herrialde bakoitzaren propagandarekin bat dator. Propaganda diot, estetikotasuna duelako oinarri.

Baliabideen konparaketak geroz eta funts teoriko gutxiago eta estetiko gehiago du. Prentsa eta sare sozialen propagandak dugun ekonomia ereduaren logika bera du; informazioak indartsua, teorikoki apala eta estetikoki ederra izan behar du. Ondorioz, migrazioaren baliabide konparaketaren oinarria eredu ekonomikoa bihurtzen da, azken batean, ekonomikoki aurreratuak diren herrialdeetan bakarrik dutelako ahalmena propaganda egiteko.

Migrazioa fenomeno naturala da, baina fenomeno naturalak pausatu daitezke; ez txarrak edo onak direlako, fluxua kontrolaezina delako baizik, bai immigrazioa pairatzen duten herrialdeentzat baita pertsonentzat ere, azken hauek izanik kaltetuenak. Eztabaidak beraz ez du oinarritzat pertsona fluxuaren kontrola edo mugaketa eskatzea, propaganda gelditzea baizik.

Esan bezala, gizabanakoa bizi ahal izateko baliabideen konparaketa egitean, baliabide onenak dituen herrialdera joango da bizitzera. Baina, ze maila edo baldintzatan egiten du baliabide konparaketa? Informazioa guztiz egiazkoa da edo "herrialde aurreratuek" berea saltzerakoan beren produktuen salmenta basatiaren logika aplikatzen dute, eredu estetikoari garrantzia eman eta funts teorikoa baztertuz?

Pentsa dezagun migrazioak funts natural bat duela, eta fluxua konstantea izango dela uneoro, beraz, zer gutxiago bizirauteko baliabideen konparaketa egiterakoan informazio guztia gure esku edukitzea baino? Askotan migrazioa informazio falta da, besteetan ezinbestekoa da —gerrak, goseteak, gaixotasunak eta abarrek eraginda—. Gure helburua ez da azken migrazio mota hau informazio faltagatik suertatzen dela justifikatzea, erokeria bat izateaz gain faltsua bailitzateke. Gure xedea, migrazioan parte hartzen duten pertsonei baliabide konparaketa egiterakoan informazio guztia ematea da, eta ez mendebaldeko gizarteak egin ohi duen eran, bere etxea urrea bezala saldu eta mugak ixtea. Guztiok gara pertsonak, eta pertsona orok bizitza hoberena nahi dugu, beraz, ez ditzagun immigranteak errudun sentiarazi lana kenduko digutelako, azken batean, lana guk eskaini diegu eta.

AITOR IRIGOIEN
BEÑAT GEREKA
MIKEL MUGIKA

+ = - berezia

Azkenaldian, gure ataltxo honetan hainbat elkarrizketa ilustre, denboran atzerako bidaiak, CSI Getariaren ikerketa kasuak... eginak gara. Baina denbora da herriko nobedadeen inguruan iritzirik eman gabe.

Hala, oraingoan Itxaspeko gure ofizina ofiziala utzi, eta kafetegian jarri gera, infiltratuta, kurasan integral eta kolakauakin, Getaian pasatzen dian gauzei buruz kuxkuxeatu asmoz. Hori marka ordea, gauza txar ta kritika gaixtorik ez zaigu bururatzen, ia dena positibo ikusi baitegu!!! Udako kanta bihurtu den Gazte Alaiaken azken *single*aren eraginez edo eguzki fuerte honen azpian egoteagatik, notizi onak eta positiboak idazten jarri gera, eta negatibo bakarra topatu degu. Protesta pixkat egin nahi genun, baina beste baterako utzi beharko degu.

90. hamarkada hasieran bazen *Cuatro bodas y un funeral* pelikula famosua. Gu gehiago *Loca academia de policia* edota *Ace Ventura* bezalako filmetakuak ginan, baina aipatu pelikularekin oroitu gera, lau berri + eta – bakarra aukeratu ostean:

+ 1: Urritza taldea bizi-bizi

Poza ematen du goizetan kalera atera eta duela hainbat urte, gu haurrak ginela, martxan jarri zen Urritza taldea berpiztuta eta gogo biziz ikustea. Garaiak aldatu dira, baina Urritza taldekoek betiko ilusioa mantentzen dute, eta 160 inguru haurrekin dabiltza lanean, oraingoan udaleku irekietan. Hau posible egin duten gazteak zoriondu nahiko genituzke. Jarraitu hemendik aurrera ere herriko kaleei kolorea jartzen! Bejondeizuela!

+ 2: Konpartsako doinuekin dantzan

Salbatoreak gerturatzearekin batera, Konpartsakoak ere gogor ari dira entseguekin. Askotan aipatu izan da gurea oso herri parte-hartzailea dela, eta hauxe da hori konfirmatzen duen adibideetako bat. Izan ere, 120 dantzari (60 bikote) ari zaizkigu abuztuaren 6rako *show*a prestatzen, ta horiez gain antolakuntza lanetan dabiltzanak. Gerriak mugitzeko ez da aitzakiarik faltako beraz. Kantatzen eta dantzatzen dun herria ez baita inoiz hiltzen!

+ 3: Neskak ere frontoian protagonista

Urteroko eskupilota txapelketa klasiko bihurtu da jada, baina aurtengoan nobedade gisa nesken txapelketa dugu. Kirolean ere aukera berdintasuna bultzatzeko beste urrats bat, kirola egiteko neska zein mutil izan berdin duela erakusteko beste eredu bat. Bide asko dago oraindik egiteko, baina holako pauso txikiak ematea da bidea. Garai batean edo orain "arraro" omen dena hemendik urte batzutara "arrunt" bilaka dadin. Eta bide batez, gurea den kirol bat zabaltzen jarraitzeko. Irujok bere agurrean esan zuen bezala, "gora euskal pilota!".

+ 4: Donosti Cup txapelketan Getariako gazteak

Aurtengoan, estreinekoz, hain ospetsua bilakatu den Donosti Cup futbol txapelketan parte hartu dute Getariako Keta taldeko gaztetxoek. Oso esperientzia ona izan da, munduko bazter desberdinetatik etortzen diren taldeen artean, gure herria ere presente izatea. Horrela, harrobia bermatuta du Ketak, aurten erretiratu den beterano pare honi erreleboa emate aldera...

-1: Euskararen kale erabilera behera

Atera berri dira euskararen kale erabileraren datuak, eta ez dira batere positiboak, azken hamar urteetan jaitsi egin baita. Nabarmentzekoa da Gipuzkoan ere jaitsi dela, baita herri txiki euskaldunetan ere. Ondo dago euskaraz jakitea, baina hori bezain garrantzitsua da erabiltzea: eskolan, kalean, lagunekin, lanean, etxean, bikotearekin... Gure esku dago euskarak bizirik jarraitzea, ondoren ez du balio besteei errua botatzeak. Getarian ere euskaraz bizi nahi dugulako!!!

udalsarea21

Hondartzen Lurralde Mahaia

Hondartzen Lurralde Mahaia eratu da kalitate handiagoko kudeaketa sistema ezartzeko. Lehendabiziko aldia da Gipuzkoan honelako ezaugarriak dituen organoa eratzen dela.

Mahaian zerikusia duten erakundeek parte hartu dute: Gipuzkoako Foru Aldundiak eta kostako udalek, hain zuzen. Bere helburua da natur inguruneari errespetua izango dion kudeaketa sistema ezartzea, erabiltzaile guztiek hondartzen kalitateaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Mahaia kontsultarako eta aholkurako organoa da. Lehendabiziko jarduketako bat izango da irisgarritasun analisia egitea hondartzen erabilerraztasuna burutzeko. Lehentasunezkoa da hondartzen kudeaketa integralerako politikak garatzea, uraren, hondarraren eta hareatzetan ematen diren zerbitzuen kudeaketa egokia barneratzeko. Hondartzen ekosistemekin bat datorren jarduketa politika sustatzen ari da, hondartzak babestu eta mantentzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Departamentua arduratzen da Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba eta Mutrikuko hondartzak garbitzeaz.

Helburua da parte hartzen duten organismo eta erakundeen baliabide tekniko, ekonomiko eta gizartekoak optimizatzea, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko eta erabiltzaileek aktibitatea garatzen duten natura habitata hobeto zaintzeko.

Hauek izango dira Mahaiaren funtzioak besteak beste:

- Lurraldeko hondartzen kudeaketarekin lotutako politikak aztertzeko plataforma izatea, eta politika horiek hobetzeko egoki ikusten diren neurriak proposatu eta ebaluatzea.
- Bere jarduera esparruan eragina duten askotariko proiektuen inguruko proposamenak egitea.
- Hondartzen eta inguruaren egoera zein kudeaketa hobetzeko neurri egokiak proposatzea.
- Hondartzen eta inguruen ingurumen balioak nahiz haiek dituzten arazoak zabaltzeko eta komunikatzeko zein horien inguruan orientatzeko eta sentsibilizatzeko helburua duten neurriak proposatzea.
- Hondartzen kudeaketarekin eta kontserbazioarekin lotutako azterketak proposatzea.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea, eta erantzukizun partekatuaren printzipioa eraginkorra izaten laguntzea. Horretarako gizarte osoaren inplikazioa bilatuko da hondartzen kudeaketan eta kontserbazioan.
- Bere eskumen esparruari buruz, egoki iritzitako gomendioak egitea.

Gipuzkoako hondartzak lurraldearen ekonomia eragiletzat, osagai bereizgarritzat eta erreferente turistikotzat hartzen ditu, eta ingurumen balio nagusietariko bat bezala.

Informazio gehiago:
Tel. 943 896024
www.urolakosta.eus
maizpuru@getaria.org

FULDAIN
FARMAZIA

Nola eman kolirioa haurrei

Udaran konjuntibitisak asko ugaritzen dira eta lagungarri izan daiteke haurrei kolirioa nola eman behar zaien jakitea. Hain umea ez bada eta nahikoa adin badu, kolirioa bere buruari botatzeko gai izan daiteke laguntzarik gabe; bestela hona aholku batzuk:

- Ezertan hasi aurretik, egon lasai, eta hitz egin haurrari goxo. Ez da urdurituko horrela.
- Garbitu eskuak ondo, ur eta xaboiz, eta lehortu.
- Astindu ontzia, erabilera orriak hala badio
- Jarri haurraren atzean, eta bota iezaiozu burua atzeraka. Ahoz gora ere etzan dezakezu.

  Haurtxoa bada, bildu ezazu tapakitxo batekin, horrela haren besoak eta hankak geldirik edukitzea lortuko duzu.
- Kendu tapa ontziari, eta utz ezazu leku garbi batean.
- Esku batekin euts iezaiozu haurraren bekokiari, eta hatz txikiaren laguntzaz jaitsi leunki beheko betazala.
- Heldu ontziari beste eskuarekin; jarri punta behera begira duela begitik ahalik eta gertuen, baina begia ukitu gabe.
- Estutu pixka bat ontzia tanta bakar bat eror dadin beheko betazalean sortu den hutsartera.
- Askatu beheko betazala, utzi begia kliskatzen, eta, berehala, kokatu hatz bat begi txokoan, eta estutu leunki.

- Garbitu sobera dagoen kolirioa zapi garbi batekin. Itxi ontzia, eta garbitu berriz eskuak.

Azkenik, haurra urduritzen bada eta begia ireki nahi ez badu, bota diezaiokezu tanta sudurretik gertuen dagoen partean, eta igurtzi leunki. Ez da hain eraginkorra, baino balio dezake.

Informazioa *ibotika* Medikamentuei buruzko herritarrentzako informazioa buletinetik atera da.

Idazlea
GARBIÑE IBARBIA

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA DISEINUA DENONTZAT

Orain dela aste batzuk gonbidapen bat jaso nuen Donostiako Bulebarrean zegoen etxe irisgarri, inteligente eta iraunkorra bisitatzeko. Erakusketa gunea trailer egokitu bat zen; bertan gaur egun eraikuntzan eta altzarigintzan irisgarritasunari dagozkion azken soluzio tekniko eta teknologikoak erakutsi zizkiguten. Dinamizatzaile espezializatuen bitartez ikusi genuen etxeetan dauzkagun hainbat aparatu —hozkailua, garbigailua eta abar— ukitu gabe nola maneiatu, etxeko atea mugikorraren bitartez irekitzeko aukera eta baita zenbait urritasun dituztenentzako tresnak ere, hala nola, entzumen urritasuna dutenentzako argiztapen edo bibrazio sistemadun alarma erlojua, gurpildun aulkia erabiltzen dutenentzako sukalde-gaineko altueran erregulagarria zein itsuentzako ahots edo ukimenezko erreferentzia duten etxetresnak.

Etxebizitzaren diseinua eta ekipamendua erosotasunean —bertan bizi diren pertsonen beharretara egokituta—, erabiltzeko erraztasunean —ezintasuna izan edo ez—, segurtasunean —istripu edo lapurreten prebentzioa—, iraunkortasunean —hondakinen kudeaketa, energia eta baliabideen aurreztea— eta noski, edertasunean oinarrituta egon behar da, bakoitzak aukeratutako eran bizi ahal izateko, aukeratutako jendearekin eta norberaren bizitza norberak kontrolatzeko. Kontua denok bizi aukera berberak izatea da, azken finean.

Irisgarritasun unibertsalak kontuan hartzen ditu inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktu eta zerbitzuek, baita objektu edo tresnek bete behar dituzten baldintzak; ulergarria, erabilgarria eta bideragarria izan dadin pertsona guztientzat.

"Diseinua denontzat" kontzeptuak guztiok erabili ahal izango ditugun produktu eta zerbitzuak diseinatzea

du helburu. Ez du egokitzapen edo diseinu espezializaturik aurreikusten, jende guztiaren bizitza erraztuz, adina, tamaina edo ahalmena kontuan hartu gabe. Oro har, denon onurarako da ingurune, produktu eta zerbitzuak "Diseinua denontzat" kontzeptupean diseinatzea; gainera, diseinatzeko momentuan zailtasunak dituzten pertsonak kontuan hartzeko gai bagara mundu hobea sortuko dugu denontzat.

Gaur egun, gaixotasun eta lesio asko gainditzen ditugu, beraz, ezintasun gehiagorekin bizi gara. Urritasuna duten pertsonentzako Europar Foroaren presidente Yanis Vardakastanisek esaten duen bezala, irisgarritasun falta diskriminazio era sotil bat da, gizarte talde horiek ez dutelako partaidetza maila bera eta gainera, zailtasun handiak dituztelako aldaketak sustatzeko.

Gizartearen ardura da, eta bereziki botere publikoena, edozein pertsonak ingurune eraikia independentziaz eta modu normalizatuan erabiltzeko aukera izatea. Hori lortzeko, pertsonen behar desberdinak denek erabiltzeko moduko instalazioetan integratu behar dira.

Diseinu onak ahalmena ematen du eta diseinu txarrak ezintasuna!

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

XX. MENDE HASIERAKO NEKAZAL MUNDUA

Euzko Nekazarien Bazkunak Getarian izandako presentziaren inguruko zenbait datu eman ziren aurreko idatzian. Baina, hau izan al zen herrian egon zen lehen nekazal elkartea? Artxiboko dokumentazioak argitzen digunaren arabera, galdera honen erantzuna ezezkoa izango litzateke. Beste sindikatu baten aipamena, zeharka bada ere, aurki daiteke, argi eta garbi bere existentzia frogatzen duena, nahiz eta elkarte honen izaera ez dagoen batere argi.

San Blas baselizako pintura, aztergai daukagun garaian itsasoak eta baserriek zuten garrantziaren isla. / Arg.: www.guregipuzkoa.eus.

1910eko urriaren 2ko udal aktan Gipuzkoako Aldundiak zabaldutako zirkular baten aipamena egiten da, non nekazal sindikatuek zituzten abantailak herrian zehar zabaltzeko ardura Getariako Udalari ematen dion. Badirudi honek bere eragina izan zuela, 1918an sortu baitzen Getariako nekazal sindikatua.

XIX. mendean zehar nekazal munduan zailtasun ugari egon ziren arren, XX. mendearen hasieran aurrerapen nabarmena eman zen produktibitate indizeek adierazten dutenaren arabera, bai espainiar lurralde osoan baita euskal lurraldean ere. Kontuan izan behar da euskal lurraren lanketaren ehuneko handiena esplotazio minifundistek egiten zutela, laborantza lurrez inguratutako etxe isolatuek; aski ezagunak diren baserriek, alegia. Nekazaritzaren suspertzeak ez Estatua ez norbanako edo baserritarrak aurre egiteko prest ez zeuden inbertsioaren hazkundea exijitzen zuen. Nola egin zitzaion aurre egoera honi? Nekazal asoziazionismoa izan zen baliabide urriak zituzten baserritarren aukera bat.

Egungo Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten probintzietan sindikalismo katoliko modura ezagutzen denak pisu garrantzitsua izan zuela esan daiteke, batez ere Arabaren kasuan. Gipuzkoan aldiz, oso presentzia mugatua izan zuen. Sindikalismo katolikoak sindikatu modura ezagutzen ziren nekazal kooperatibak zituen herri ezberdinetan. Probintzia bakoitzean federazio bat edukitzen zuten, guztiak *Confederación Nacional Católico Agraria* izeneko Espainia mailako erakundeak gidatzen zituelarik.

Getariako artxiboko dokumentazioak eta Espainiako Sustapen Ministerioak eskaintzen diguten informazioaren arabera, Getariako sindikatua ez zen aipaturiko konfederazioaren zati. Egia esan ez da harritzekoa, 1934ko datuen arabera, Gipuzkoan zeuden 28 sindikatuetatik zortzi bakarrik baitziren katolikoak. Dagoen informazioarekin, bi ondorio atera daitezke:

- Getariako nekazal sindikatua 1918an sortu zen, iturri ofizialen arabera.
- Ez zegoen C.N.C.A. izeneko erakundearen barnean.

Zein izaera edo joera zuen Getariako nekazal sindikatuak?

Egilea
EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

Idazlea
ANDRES ALBERDI

PÍKOTA/PÍKOTANEKOA

Próstua izenaz jardun genuenean bezala, esan behar dugu gaurko izen hau ere ez dela propio leku-izen baten harian ekarria lerro hauetara, baizik Getariako familia ezagun baten ezizen edo izengoitia den aldetik: ***Píkota/Píkotanekoak***.

Etimologiari begiratuta, bi osagai garbi ditu **Píkotaneko** izenak: *pikota* + *-(e)neko* atzizkia.

-(e)neko atzizkiak familia adierazten du, nongotasuna: Genovevanekoa, Fidelanekoa, Kaxildonekoa, Pierresenekoa, Txanonekoa, Txipristinenekoa, Txirrintxonenekoa... Oinarrian, pertsona-izena (Genoveva, Fidela, Kaxildo) edo goitizena (Pierres, Txano, Txipristin, Txirrintxon) eramaten du. **Pikotaneko** izenaren azpian, ulertu behar da **Pikota** deitzen zioten norbaiten familiakoa adierazten dela.

Pikota hitzak zer esan nahi duen, zalantza-iturri da, hiru interpretazio baitira posible.

- Izan liteke *piku* (*piko*) hitza egotea oinarrian: *piko* + *(e)ta* (Pagoeta edo Lizarreta izenak bezala osatuta). Hartara, 'piko ugari dagoen tokia' adieraziko luke. Euskal Herrian baserri- eta toki-izenak badira elementu horrekin osatuak: Pikote baserria, Pikoteazpi haitzartea (Zumaiakoak dira bi izen horiek), Pikotaerreka (Baztangoa)...

- Izan liteke gaztelaniazko *picota* hitza egotea oinarrian ('humilladero'). Herrietako sarreretan egoten zen harrizko zutabe bat izaten zen pikota (ikus argazkia), eta, XIII. eta XIX. mende bitartean, exekutatuen buruak zintzilikatzeko edo kondenatuei zigorra aplikatzeko erabiltzen ziren; ohikoa zen lapur eta gaizkileak ordu batzuetan bertara lotzea ere, jende aurrean lotsarazteko.

- Izan liteke *pike* hitza ('aldapa handiko tokia') egotea oinarrian, eta jakinik non zegoen Píkotaneko etxea, ez da baztertzekoa aukera hori ere.



Iribarrena kalean zegoen Píkotaneko etxea, Menditxopean. 1960. urte inguruan eraitsi zuten, arrantzaleen etxeak egiteko.

Aukera baten alde egin beharko bagenu, lehenengoaren alde egingo genuke. Beste zenbait arrazoiren artean, izenari ematen zaion azentuatze-moldeagatik.

Hortaz, **Píkota** deitzen zioten norbaiten familiakoa izatea da Píkotanekoa izatea, eta **píkota** hitzak piku ugari dagoen tokia adieraziko luke.

Herri-sarreretan egoten zen pikota, eta gaizkileak bertan lotzen zituzten eskarmenturako.

IÑAKI REQUEJO

Borondatearen dogma

Goethe poeta alemaniarraren *Fausto* lana irakurtzen aritu nauk bainujantzitan eta Faustok Margaritari eginiko galderak Katalunian bolo-bolo dagoen gaiaz hausnartzera bultzatu naik, ez soilik Kataluniaz, giza kondizioaz. "Barkatuko zenidake izan nuen askatasuna?", dio Faustok.

John Stuart Mill pentsalariak *Askatasunari buruz* lanean honela dio: "Nazio baten balioa berau egituratzen duten pertsonen balio batura bat besterik ez da".

Norbanakoaren garrantzia azpimarratuz, Wilhelm von Humboldt pentsalariak *Gobernuaren esfera eta beharrak* lanean honela dio: "...printzipio nagusia, gailentzen den printzipioa... giza jokaerak duen garrantzia esentzial eta absolutua, bere dibertsitate aberatsaren baitan ematen da".

Abuztua duk eta hitz merke eta aspergarriak direlakoan nagok, Zigor, beti askatasuna nork duen eztabaidatzen diagu, eta guda horretan beti garaile duk ekonomikoki edo politikoki indartsuena. Batek esan zezakek politikan indarra gehiengoak duela eta gutxiengoak joko-arauekin bat egin duenez, onartu besterik ez duela. Ez zioat arazorik ikusten argudio horri, bai premisa nagusiari ordea, gizarte batek gehiengoaren dogmaren baitan bizi beharrari.

Alexis de Toqueville politikari frantsesak *Ameriketako demokrazia* lanean herriaren subiranotasunaren dogmaz dihardu. Europako herrialde guztietan aurki daitekeela zioen, eta modu batean irtenbide hau ematen dio: "Gizartean bezala, pertsona guztiak helburu berdinetara zuzentzen dira, baina ez daude beharturik modu edo bide berdinetatik egitera. Arrazoia eta borondatearen sakrifiziorik ez dago bertan —Ipar Amerikan—, biak nahasten dira printzipio orokor batera iristeko".

Ideia honen atzean Frantziar iraultzari eginiko kritika sakon bat aurkitzen diat, eta hein batean gaur egun ez zagok desfasaturik. Gizarte batek printzipio orokorrak behar dizkik ezinbestean helburu zehatz batzuk lortu ahal izateko, baina helburu horiek lortzeko bideak anitzak izan daitezke. Bai Espainian, Katalunian eta Euskal Herrian —beste ehunka herrialdeetan ere— herri edo nazio helburuak modu bateratu eta hertsi batean eramaten dituk aurrera, dogma merkeen baitan. Finean, guztion helburua dibertsitate kulturalean bizitzea izango balitz, ez diagu zertan guztiok borondate berdinarekin jokatu, nik ez diat zertan mugimendu sozial edo politiko batekin zor moral bat eduki helburuak konpartitu arren.

Joka genezake modu arrazional batean eta ez borondatearen dogmaren baitan. Inori ez zioat aske izanagatik barkamenik eskatu beharrik. Are gutxiago galdeketa bat egiteagatik.

Ondorioz, nazioa pertsonen balio lotura izanik eta printzipio nagusia giza dibertsitatea bada, nola eraiki sare komun bat? Agian demokraziak ez dik zer eginik, beti baita baztergarria eta dogma zapaltzaileen egile.

ZIGOR SAIZAR

Etxetik askatasuna

Askatasunaz ari haiz, Iñaki, norberaren askatasunaz, herrialdeen askatasunaz, eta nik honen guztiaren gainetik beldurrik gabe bizitzearen askatasunaz hitz egin nahi nikek. Kalean edozein ordu dela, alde batera eta bestera begiratu gabe ibiltzearen askatasuna; minigona, galtza estuak, eskotea, ezpainak gorri-gorri margotuta, tangaren goialdea bistan... bakoitzak nahi duen bezala jantzi eta apaintzeko askatasuna, horregatik "puta" edo "potxorbero" bat dela deitu edo pentsatzeko arriskurik gabe; etxean, bikotean, lagunartean... norbera inoren

jabetzakoa ez izatearen askatasuna; jipoitua, abusatua, erasotua, iraindua, eraila izateko beldurrik gabe bizitzeko askatasuna.

Alboko herrian 19 urteko zarauztar batek 17 urteko iruindar bat bortxatu dik herriko festetan. Egun batzuk beranduago, malekoian, 16 urteko belgikar neska sexualki erasotua izan dek. San Ferminetan ia dozena bat sexu-eraso salatu dituk. Iaz jai hauetan bost putasemek —tartean guardiazibila eta militar bat— 19 urteko neska bat etxe atari batean indarrez sartu, banan-banan bortxatu eta gainera beraien "balentria" mobilez grabatu zitean. Munduko festa onenak diren horietan duela urte batzuk Nagore Lafagge bortxatu eta akabatu zian "izenik gabekoa" 12 urteko espetxealdira kondenatu ziaten; 8 urte beranduago aske zagok.

Ordu txikitan guardiazibilak taberna batean jipoitzea terrorismoa dek —62 urteko espetxealdia eskatu dik fiskalak—; emakumeak bortxatzea, erailtzea, sexuz erasotzea ez al da terrorismoa? *Terrorifikoa* bai behintzat, horrela bizi baitituk gure alabak, neska-lagunak, lankideak... emakumeak...izututa, beldurtuta... beldurrik gabe bizitzeko askatasunik gabe, beste batzuk aske dauden bitartean.

Gehiengoaren dogmaz ari haiz, dogma zapaltzaileaz, eta gurean dogma, gizartea dogmatzen —domatzen— duena ekonomikoki eta politikoki bóteretsuen menpe dauden komunikabideak dituk. Hauek programatzen ditek *Mujeres, Hombres y viceversa* gisako zaborra, zeinetan mutil bati lauzpabost neska bere jabetzakoak bezala aurkezten zaizkion. Gure gazteek, bai, Euskal Herriko gazteek, gehien ikusten duten programa dek, Iñaki. Eta jakin nahiko nikek eredu berdina saltzen duten zenbat *youtuber* dauden sarean...

Ikastolan nire andereñoak amari jarrera matxistak nizkiala esan zitxoan 8 urte nizkianean, baloia eta futbola besterik ez nituela buruan. Marilolik ordutik aurrera, urtero urtero, Gabonetan nire zapataren alboan Barrigitas bat jartzen zian opari: Barrigitas eskimala, Barrigitas beltzarana, Barrigitas indioa, Barrigitas errusiarra, Barrigitas txinatarra... Etxetik hasten duk dogmatik ihes egiten, etxetik hasten dek askatasuna, Iñaki.

Bidaltzailea
Artzapeko lantaldea

ELETXORIA

Eletxoria izenez eta Getarian [eletxoiya] esanda ezagutzen dugun txori honek, toki-eskualdearen arabera, izen bat edo beste dauka euskaraz: *txolarre* (euskara estandarrean gehien erabiltzen dena), *hormatxori*, *artatxori*, *burrioi*, *eliza-txori*, *erretxori*, *errota-txori*, *etxetxori*, *garraio*, *kurloi*, *parratxori*, *murru-txori*, *lapurtxori*... Hiztegietan, Plazido Mujikarenean bakarrik aurkitu dugu *eletxori* hitza, eta, dirudienez, Getarian ez ezik Gipuzkoako beste zenbait tokitan ere hitz hori erabiltzen dute gaztelaniazko *gorrión* (*Passer domesticus*) txoria izendatzeko. *Eletxori* hitza, itxura denez, *ele(iz)-txori* edo *etxe-txori* hitzaren laburdura/aldaera da.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* -era ezagutzen dituzun hitzak.

JOXI ERAUSKIN

Bi gauza dira infinituak

Albert Einsteinek esan zuen bere garaian, "Bi gauza dira infinituak: gizakiaren ergelkeria eta unibertsoa; eta bigarrenaz ez nago oso ziur". Fisikariak sumatzen zuen zerbait hori adierazten zuenean, historian zehar frogatuta geratu den bezala. Gizakia koldarra eta ergela izan da historiako une askotan, ausardiaz gizakiaren alde egin ordez bere etsai bihurtu baita. Gerraren bidez baizik ez du osatu bere historia. Ez du jakin justizia ezartzen, ondasunak zuzen banatzen, gizon-emakumeen berdintasuna bermatzen...

Gure gizartean, giza-elkarte guztiak piramidalak dira: gailurrean aberatsak, ahaltsuak, boteredunak eta adimentsuak daude, mundu guztiak miresten dituenak; erdian hiritar arruntak, gehientsuenak izanik, mirestuak ez direnak; eta azkenik, oinarri-oinarrian, erdikoek ere harrotasunez goitik begiratzen dietenak, hau da, behartsuak, apalak...

Orain bi urte Hungaria eta Texasko bi unibertsitatek egindako azterketa batean hiru ergelkeria mota daudela erabaki zuten: ezjakintasuna, zabarkeria eta burutik joatea. Gainera, gizarteko esparru guztietan omen daude kokatuta portzentaia berdintsuan, eta maila kulturalak edo ekonomikoak zerikusirik ez omen du horretan, baizik eta maila orekatuan agertzen omen dira arlo sozial guztietan adimentsuekin, gaiztoekin eta sineskorrekin nahastuta. Baina denetan arriskutsuenak ergelak omen dira eragiten duten kalteagatik. Eta noski, horietan okerrenak goi-mailan edo agintean leudekenak: burokratak, militarrak, politikoak, estatuko agintariak...

Beraz, hori horrela bada, gailurrera iristen diren hainbat ergel edo burugabe jende arriskutsua da benetan. Min eta kalte handia egiteko ahalmena dutenez, gizarteak aurrera egitea galerazten dute. Egunero ikusten dugu hori hartzen dituzten erabakiengatik, albisteetan entzuten dugunagatik: handikien eta multinazionalen interesak defendatzea dela, armak saltzeko gerrak sortzea, klima aldaketaren kontua...

Hori baino okerragoa da, ordea, komunikabideen eraginez nola zabaltzen duten beren mezua munduan zehar, jendeari gezurraren bidez sinetsaraziz gizarteak eta ekonomiak aurrera egiteko beharrezkoak dituen aldaketak, nahiz eta gero horien aurkako erabakiak hartu. Propagandaren bidez ziria ondo sartzen digute beren helburuak lortzeko, eta amua irensten dugu. Beraz, guztioi dagokigun gai bat denean entzungor egin edo beste aldera begiratzen badugu, gu ere ergel moduan ari gara jokatzen.

Beti aipatzen da komunikabideek horretan duten ardura nahiz zerikusia. Horrela da. Medioek manipulazioan duten eraginaz eta errealitatea aldatzeko duten indarraz konturatzen ez garen bitartean, gezur batean bizi izango gara. Zenbat programa ergel ezartzen dizkigute gaur egun, adibidez, telebistan. Programa interesgarriak egon badaude baina gaueko ordu txikietara zokoratzen dituzte, egunean zehar zaborra baino eskaintzen ez digutelarik. Noski, horrek baldintzatu egiten du iritzi kritikoa izatea. Gero ezin gintezke kexatu ustelkerian txapeldunak direnek gobernatzean; orduan konturatzen gara egindako kalteaz.

Ayn Randek bazekien zerbait duela 70 urte honako hau esan zuenean: "Ohartzen zarenean produzitzeko ezer produzitzen ez dutenen baimena lortu behar duzula; egiaztatzen duzunean dirua ez doala ondasunekin tratuan aritzen direnena, baizik eta mesedeekin trafikatzen dutenen poltsikoetara; konturatzen zarenean asko eta asko beren lanagatik baino gehiago aberasten direla eroskeriagatik eta duten eraginagatik, eta legeek ez zaituztela babesten haiengandik baizik eta, alderantziz, beraiek daudela babestuta zure aurka; ikusten duzunean ustelkeria saritu egiten dela eta zintzotasuna sufrimendu bihurtzen dela, orduan huts egiteko beldurrik gabe baieztatu dezakezu zure gizartea kondenatuta dagoela".

Eta egia da. Gizakiak gizaki izaten jarraitzeko beste bide bat hartzen ez badu, kondenatua dago infinituraino.

Aldizkari guztiak helbide honetan:
issuu.com/artzape

29. ZENBAKIA
2004KO EKAINA

GETARIAN ZER BERRI? Udal langileak

LANUZTEAK KONBENIOAREN ALDE

Euskal sindikatuek deituta, udal langileek lanuzteak egin zituzten konbenioa negoziatzeko. Pare bat urte lehenagoko akordio falta medio, ELA eta LABek tokian tokiko udalekin negozioatzea erabaki zuen. 2003ko KPIa eta 600 euro linealen igoera eskatzen zuten, baita zabor kontratutak baztertzea ere. Getarian lehenbiziko lanuzteak egin zituzten baina inguruko herrietan mugimendurik ez zegoela ikusita, bertan behera utzi zituzten.

Artzape

ERREPORTAJEA Surf elkartea



GAZTETAPE ELKARTEAREN SORRERA

Orduko zein etorkizuneko gazteen artean surfa bultzatzeko asmoz sortu zuten Gaztetape Surf Elkartea 2004an. 50 bazkidez osatua, surf ikastaroak nahiz txapelketak antolatzea zuen helburu. Txapelketak egiteko, ordea, ezinbestekoa zen lokala izatea eta horretan ari ziren, eraikuntzako langileen grebak lanak atzeratu bazituen ere. "Orain arte zirkuituko hiru txapelketa egin dira baina gure asmoa herri mailakoa egitea da", zioen Ganix Arakistain lehendakariak.

Jon Illarramendi

ELKARRIZKETA Barbara Stammel



MARGOTZEA "DESKUBRIMENDU"

Urte luzez Getarian bizi zen Barbara Stammel ekarri genuen aldizkarira, margolari egitekoa nola bizi zuen jakiteko. "Paperean lan egiten dudanean ateratzen dena, barruko mamuak margotzen ditut", zioen. Aitor zuen ez zuela pintura polita izateagatik egiten, "zerbait espresatzeagatik baizik". Bere ikasle ziren heldu nahiz haurrez ere baziharduen: "Hamar urtera artekoei ez zaie batere kostatzen aldaketak egitea eta erabakiak hartzea. Hortik aurrera hasten da burua pixka bat lan egiten".

Irantzu Ezenarro

VALENTINA AIZPURU eta BALBINO INZA

ETORKIZUNA ERAIKITA, ATSEDEN HARTZERA

Ia lau hamarkada herriaren etorkizuna jorratzen igaro ostean, erretiroa hartzear dira Valentina Aizpuru eta Balbino Inza, Iturzaeta Herri Eskolako irakasleak. Egoera berriak zer ekarriko dien ez badakite ere, ilusioz begiztatzen dute bizimodu berria. Irailaren erdialdean amaituko ditu lanak Aizpuruk; Inzak urria hasieran. Euren bizipenak kontatzeko gerturatu dira biak ARTZAPEren bulegora.

TESTUA
JON ANDER DE LA HOZ

Hilabete da azken klaseak eman eta erretiroa hartu zenutela. Zer sentsazio duzue?

Valentina Aizpuru: Oraindik ez gaude erretiratuta. Ni irailaren 18an jubilatuko naiz, eta Balbino urriaren hasieran, 60 urte betetzen ditugunean. Ordura arte eskolan jarraituko dugu, ez dakigu zertan ariko garen, baina azken egunera arte bertan egongo gara.

Balbino Inza: Bai, lege kontuak dira, eta bertan egon beharra daukagu azken egunera arte. Urriaren 2a da nire kasuan.

V.A.: Nik sentsazio arraroak ditut. Alde batetik, gogoa dut erretiratzeko; aitortu behar dut nekatuta sentitzen naizela.

B.I.: Nik ere badut atseden hartzeko gogoa. Osasun aldetik ere pattal nabil, eta egoerari buelta emateko aukera izan daiteke bizimodu berria.

Omenaldia egin zieten eskolako ikasturte amaierako jaialdian. /Arg.: Iturzaeta Herri Eskola.

Herriko bertsolari gazteak irakasleei abesten./Arg.: Iturzaeta Herri Eskola

Nekatuta zaudetela diozue, zenbat denbora eman duzue irakaskuntzan?

B.I: Guztira 38 urte, 1979an hasi baikinen.

V.A.: Beti hemen aritu izan gara biok. Garaiko eskolak eta ikastolak bat egin zuten urtean hasi nintzen, jesuiten etxean. Han bi urte egin ostean, plazan zegoen eraikinera igaro ginen, eta oraingo kokalekura lekualdatu ginen 1985ean.

B.I: Ni ere orduan hasi nintzen, baina abenduan. Ordura arte soldaduskan nengoen, urrian hasita, eta behin handik libratu nintzenean Donostiara joan nintzen. Han esan zidaten Getarian plaza bat zegoela beste baten ordez sartzeko, eta 1979ko azaroaren bukaeran azaldu nintzen hona.

Eskolen arteko bat egitearen urtean hasi zineten, beraz. Nolakoak izan ziren ikastetxe berriaren hasierak?

V.A.: Ez ginen eskolak ematen hasi urria arte, greban egon ginelako. Orokorra zen greba hura, gure orduko egoera ez zen ona, orain ez den moduan. Hobeto egon izan gara.

Orduan gu berriak ginen, ez genekien asko, baina aurrera egin genuen grebarekin eta eskariak onartu zituzten. Hasiera konplikatua izan zen. Bat egitea nahi zuen jendea bazegoen, baina beste batzuk zalantzak zituzten. Hala ere, herriak aurrera egiteko apustua egin zuen eta hor sortu zen.

B.I: Bi eskoletako haurren artean ere bazegoen alderik. Ikastolakoak euskaldunak ziren, bizi maila erosokoak gehienak. Aldiz, eskola publikotik etorritakoen artean ezberdina zen. Nahiz eta Getarian halako alderik ez egon, beste maila batekoak ziren, eta askori euskaraz egitea ere kosta egiten zitzaien inguru erdaldunetatik zetozelako. Horiek guztiak gela batean bildu genituen.

Ni bigarren mailan egon nintzen, 28 haurrekin. Lan asko eragin zigun: haurrak ezagutu, bakoitzaren ingurunea, guztia bateratu... bilera asko egin genuen antolatzeko. Gero, testu liburuak euskarara moldatu beharra ere egokitu zitzaigun, ez zegoelako.

V.A.: Fusioa eman zenean erabaki zen guztia euskaraz ematea, D ereduan aritzekoa. Guk ikasketak gazteleraz egin



Valentinak hainbat hitz egin zituen omenaldian. /Arg.: Iturzaeta Herri Eskola

arren ez zitzaigun kostatu, gure hizkuntza euskara delako, baina materialik ez geneukan. Orain udaltzaingoa dagoen lekuan multikopista bat zegoen, eta hura erabiltzen genuen.

Nondik abiatu zen bi eskolek bat egiteko asmoa?

V.A.: Herriak eta Udalak bultzatu zuten.

B.I.: Aurrez, kooperatiba gisa funtzionatzen zuen ikastolak, eta urtean milioi bat —pezeta— galtzen zen. Beti aritzen ziren Salbadoreetan txosnak muntatzen, kontzertuak antolatzen... bazegoen bateratzeko beharra. Hala, herriko guraso elkarteak, eskoletakoak eta herritarrak ados jarri eta gobernuak hori ikusi zuen, egokitzapenean parte hartuz.

V.A.: Ez zen soilik herrian bi eskola egotea. Zarautzera ere haur pila bat joaten zen, lau autobuskada guztira. Hemen bigarren mailara arte egon eta joaten ziren.

Noiz egonkortu zen eskola berria?

B.I.: Poliki-poliki. Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza eskumenak hartzea giltzarria izan zen, zuzendaritza-antolaketaren aldetik nahiz baliabideen aldetik asko hobetu zen egoera. Beste martxa bat hartu genuen. Hiruzpalau urte nahasiren ondoren, Eulogio, Mari Jose eta horien zuzendaritzarekin herri eskola erabat osatu zen.

"Gu saiatu gara lana ahalik eta ondoen egiten, umeak ulertzen, familiak ulertzen... horri emandako erantzuna izan zen omenaldia"

V.A.: Gainera, ordura arte irakasle batzuk erdaldunak ziren, eta bilerak-eta izan genituen zein hizkuntza erabili erabakitzeko, baina helduak izanik moldatu ginen! —Biak barrez—.

Iturzaetaren bilakaeran fase ezberdinak izan dira. Oraingo eraikinean egotea abantaila nabarmena izan al zen?

B.I: Bai, bai, zalantzarik gabe.

V.A.: Guztiok eraikin berdinean egotea aurrerapauso handia izan zen. Aurrez banatuta geunden: jesuitetan zazpi gela zeuden, eta gero, kultur etxean eta —Getari— harategiaren aurreko eraikinean ere bazeuden bi gela. Irakasle gela Correosen egoitza zaharra zen, eta jolas garaian frontoian eta plazan ibiltzen ziren haurrak... eta azoka zegoenean, moldatu egin behar!

B.I.: Gainera, ez genuen gimnasiorik, eta frontoian ibiltzen ginen soinketan.

V.A.: Gerora ere ez dugu izan, baina kiroldegia erabili izan dugu. Une oro moldatzen jakin dugu.

Irakasle bezala, orotariko klaseak eman behar izan dituzue.

V.A.: Bai, tutore lanetan aritu gara biok, eta gaztelerako klasea eta espezializazioak —ingelesa eta soinketa, kasu— irakasten; bestelako irakasgaiak ematea ere egokitu zaigu.

Ba al dakizue zenbat haurrek jaso dituzten zuen klaseak?

B.I.: Pentsa, 38 urte egin ditugu eskolan, eta jakinik gela bakoitzeko haur kopuruaren batez bestekoa 18 lagun direla... guztira, ia mila umeren irakasle izan gara.

"Lehen ikasteari garrantzia gehiago ematen zitzaion, eta orain ekiteari"

Balbinok ere eskerrak eman zituen ekitaldian. /Arg.: Iturzaeta Herri Eskola .

Asko aldatu al da lan egiteko modua urte hauetan guztietan?

B.I.: Ezberdina da. Lehen ikasteari garrantzia gehiago ematen zitzaion, eta orain ekiteari. Lehen txapa ematen zitzaien, eta ikasi behar izaten zuten. Lehengo orojakile papera laguntzailearena bihurtu da, lan bat jarri eta horretan laguntzen diegu, eurek eraiki dezaten. Gizartea horretara doa, eta orain ekinez ikastera bideratuta daude eskolak.

Zerrekin geratzen zarete?

V.A.: Oraingoa askoz aberasgarriagoa iruditzen zait niri.

B.I.: Guretzat ere oraingo lana erosoagoa da. Lehen klaseak prestatu behar genituen *speech* moduan, eta liburuei tiraka ibili behar genuen. Orain arakatu behar dugu zer tresna erabili, bilatzea erraztu... helburu horietara iristeko. Aurrerapen teknologikoek lana asko erraztu dute.

Kurtso amaierako jaialdian omenaldia jaso zenuten. Ba al zenuten horren berririk, esperotakoa izan al zen?

B.I.: Ez, baina usaina hartuta geunden! —Biak barrez—. Bertso klaseetan ezkutuan aritzen ziren, esaterako, zerbait bazerabilten ordurako.

V.A.: Nik isiltasuna sumatzen nuen. Sartu irakasle gelara eta ahapeka, isilik... bazen zerbait. Gainera, kalean jendeak behin baino gehiagotan aipatzen zidan jubilazioarena eta bati galdetu nion: "zer dabil, guztien ahotan?".

B.I.: Nik egun horretan Bilbora joan behar nuen, oposaketetako azterketaren prestakuntza lanetara —epaimahaikide izan da—, eta derrigor egun horretan izan behar zuen.

Zer sentsazio izan zenituzten egun horretan?

V.A.: Hunkitu egin nintzen. Malko errazekoa naiz, eta prestatuta joan nintzen. Kriston poza sentitu nuen. Gainera, oholtzan argiekin ez genuen ikusten, baina jaisterakoan ikasle ohiak, familiakoak eta lagunak ikusteak hunkitu egin ninduen.

Halako emanaldi bat jasotzeak zerbait esan nahi du, ez?

V.A.: Zerbaiten adierazgarri bada, bai. Gu saiatu gara lana ahalik eta ondoen egiten, umeak ulertzen, familiak ulertzen...horri emandako erantzuna izan zen.

B.I.: Ekitaldi xume bezain polita izan zen. Beste lekuetan, Irunen-eta, intsigniak ematen dituzte, baina hau ikaragarri polita izan zen.

Esaldi batean, nola laburbilduko zenukete zuen ibilbidea?

V.A.: Nire bizitza izan da.

B.I.: Gustura nago, gustatzen zaidan lan batean aritu ahal izan naizelako, eta nire bizitza eraikitzeko aukera eman didalako.

Hemendik aurrera, zer?

B.I.: Bioi bilobak zaintzea dagokigu orain! —Barrez—. Ez, lasaiago izango gara hemendik aurrera, eta bizimodua aldatuko zaigu.

V.A.: Denbora gehiago izango dugu, eta irteerak egiteko aukera izango dut. Baita gehiago irakurtzeko ere; orain artean, lanarengatik nahi baino gutxiago egin dut, oporrak aprobetxatzen nituen. Orain horretan sakonduko dut.

"Lanketa sakon baten beharra du egitasmoak, eta gakoa dira getariarrak horretarako".

Testua
JON ANDER DE LA HOZ

Mundubira 500: ELKANO FUNDAZIOA

"MEREZI DUEN LEKUAN KOKATU BEHAR DA ELKANO"

Bi aurkezpen eginda, Mundubira 500 proiektuaren nondik norakoak azaldu dituzte ordezkariek; Elkanoren figura ezagutaraztea izango du helburu. Asmo horrekin bat egin dute Getariako Udalak, Urola Kostako Udal Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiak zein Eusko Jaurlaritzak. Herritarren egitasmoa izatea ere bilatuko dute.

"Getariako historia osoko egunik garrantzitsuenetako bat izango da 2022ko irailaren 6a". Nika Lertxundik uztailaren 21ean udaletxeko pleno aretoan egindako hitz hauek Mundubira 500 egitasmoaren sortzaileen nahiak adierazten ditu. Zerbait handia egin nahi dute itsasgizon getariarrak munduari bira eman izanaren bosgarren mendeurrena ospatzeko. Proiektua herritarrei aurkezteko egindako ekitaldian azaldu zutenez, "Fundazioaren helburu nagusia 1519-1522 urteen artean Juan Sebastian Elkano Getariako itsasgizonak emandako mundu biraren V. mendeurrena ospatu eta goraipatzea da". Horrez gain, azpimarratu zuten euskaldunok itsasoaren inguruan dugun izaera sortzailearen, antolatzailearen eta ekintzailearen erakusle dela gertakari hura.

Aurrez, uztailaren 5ean Udaleko, Urola Kostako Udal Elkarteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako kideen babesa bildu zuen egitasmoak. Bertan ziren, besteak beste, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua, Markel Olano Gipuzkoako Ahaldun Nagusia, Denis Itxaso Kultura diputatua eta Igor Iturain Urola Kostako Udal Elkarteko presidentea. Horiez gain, Borja Semper (PP), Jose Ignacio Asensio (PSE) eta Jasone Agirre (EH Bildu) legebiltzarkideek ez zuten ekitaldia galdu nahi izan, ezta Batzar Nagusietako EH Bildu eta EAJko ordezkariek ere. Urola Kostako herrietako alkateak ere bertaratu ziren, Getariako Udaleko ordezkariekin batera.

Hain justu, Xabier Alberdi historialariaren gidaritzapean Nikanor Lertxundi alkatea izan zen hitza hartzen lehena orduko hartan. Haren ondotik, Anne Marie Cristhope de Lardizabal omenduari eskertza egin zitzaion Elkanoren ondarea zaintzen bere familiak egindako lanarengatik, eta Bingen Zupiria sailburuak jardun historikoa nabarmendu zuen hitzaldi batean. Atzetik, Markel Olanok egitasmoaren alderdi estrategikoa azpimarratu zuen.

Alor horri garrantzia handia eman diote, hain zuzen ere, Getariako Udalean. "Laugarren mendeurrenarekin egin bezala, herriarentzat estrategikoak diren proiektuak abiatzeko aukera dago oraingoan ere, izan kirol, hezkuntza edo hirigintza sailetan", dio Ibon Gereka zinegotziak. Horretarako, herritarren laguntza eskatu zuten Lertxundik eta Aitor Urresti zinegotzi eta Fundazioko bokalak aurkezpenetako batean. Euren esanetan, "lanketa sakon baten beharra du egitasmoak, eta gakoa dira getariarrak horretarako". Hala, udazkenetik aurrera plan estrategikoa osatzeko parte-hartze prozesua abiatuko dutela zehaztu dute, bi adar izango dituena: batetik, Fundazioaren proposamenak bilduko dituzte, eta bestetik herritarren ekarpenak.

"Elkanoren irudia zabaldu behar dugu Getarian, Gipuzkoan, Euskal Herrian eta munduan, eta horretarako guztiok inplikatu behar dugu", azaldu

Erakundeetako ordezkariak lehen aurkezpenean. /Arg.:GFA

dute Lertxundi eta Urrestik. Hala, azpimarratu dute "jarduera inklusiboan" oinarritu behar dela egitasmoa, "herri nahiz nazioarte mailan garatuko den ardura publiko nahiz pribatuko proiektua denez". Zehaztu dutenez, Fundazioa bera ere elkarlanean abiatu dute eta patronatua osatuko da: Fundazioko presidenteak —Getariako alkatea izango da—, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren, Garapen eta Lehiakortasunerako kontseiluko kide batek osatuko dute. Horren pean egongo den Zuzendaritza Batzorde batek helburuak zehaztu eta ekimenak bideratuko ditu; azkenik, administrari batek harrera zerbitzuaren eta kontuen erantzukizuna izango du. Datorren asteetan izendatuko dute Fundazioa gidatuko duen zuzendaria.

Herriko alkate gisa, Nika Lertxundik beteko du, 2019. urtera arte bederen, Mundubira 500: Elkano Fundazioaren presidente kargua. Hala, bera arduratu zen proiektuaren xehetasunak herritarrei argitzeaz bigarren ekitaldian. Bertaratutako

Kobrantza segurtasuna

Apartamentuaren osotasun fisikoaren bermea

Kudeaketa osoa

Errentagarritasun handiagoa

Mantentze hobea

Etxearen eskuragarritasuna

Konpromiso malgua

Berehalako informazioa

Deskontuak beste etxeetan

Arreta zerbitzua

basquestay

Alokairu turistikoak

www.basquestay.com 606 747 756 info@basquestay.com

hamarnaka herritarren aurrean zehaztu zutenez, "proiektu estrategikoa" da lau instituzioek abiatu dutena. Fundazioak itsasoaren potentzialitatea oinarri hartuta, kultura, turismoa, industria, merkataritza eta

"Laugarren mendeurrenarekin egin bezala, herriarentzat estrategiko diren proiektuak abiatzeko aukera dago oraingoan ere".

hezkuntza arloak sustatzea du xede eta ardatz. Horretarako, mundu biraren inguruan zeresana izan dezaketen gertaerak, ekintzak eta abar bultzatzeko azpiegitura sortu da: "Etorkizunean kongresu, ikastaro, mintegi, konferentzia, erakusketa eta erakustaldi monografikoak, artikulu, liburu, aldizkari eta ikus-entzunekoen bilgune izango da", azpimarratu dute. Bide horretan guztien aho beteko onarpena izan duela nabarmendu dute udaleko iturriek: "Alderdikeriak bazter utzita, elkarlanean sortu dugu Getariaren etorkizunean garrantzia ikaragarria duen egitasmoa", xehatu zuen Urrestik.

Aurrez instituzio horietako ordezkariekin egindako aurkezpenean azpimarratu bezala, "itsasgizonaren espedizioak egindako aurkikuntzak oso baliagarriak izan dira mundu zabalean, eta Elkanoren erreferentzialtasuna berretsi nahi dugu". Hala, zehaztu dute "Fundazioak Elkano bera eta itsasoa balioan jarriko ditu, lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialean izan duten garrantzia balioan jarriz".

Udalak esfortzua egin duela zehaztu du gobernuko kide Gerekak: "Laugarren mendeurrenean Donostiatik heldu zen iniziatiba, eta Getariak probestu egin zuen. Oraingoan Udala proiektuaren erdigunean dago, eragile garrantzitsua da bertan". Hala, zehaztu du presidenteaz gain bi bokal izango dituela Udalak, nahiz bat mankomunitateko kide gisa heldu hara. Aurkezpen ekitaldian Lertxundi alkateak adierazi zuen "Elkano merezi duen lekuan kokatu" beharra dagoela, eta lanketa horretan Udala ezinbesteko pieza dela uste du herri mailako instituzioak.

Lertxundi eta Urresti, Fundazioko presidentea eta bokala, hurrenez hurren.

Lertxundi eta Anne Marie Cristhope de Lardizabal. /Arg.: Urola Kostako Hitza

2017ko UZTAILA/ABUZTUA

28 Ostirala

Zinea kalean

Ordua: *19:30ean eta 22:00etan*
Lekua: *Katrapuna plaza*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Arratsaldean haurrentzako saioa izango da eta "Surfak zoratzen" emango dute; gauean, helduen saioan, "Comancheria".

29 Larunbata

Salbatore jaietako VII. Futbito Txiki Txapelketa

Ordua: *09:00*
Lekua: *Herriko frontoia*
Antolatzailea: *Udala*

- *Taldea gutxienez bost jokalarik osatu behar dute.*
- *Lau mailatan banatuko dira taldeak: 1. eta 2. mailak, 3. eta 4. mailak, 5. eta 6. mailak, eta 1. eta 2. DBH.*
- *Taldeak getariarrak izan beharko dira.*

1 Asteartea

Gazteen patata-tortila lehiaketan izena emateko azken eguna

Lekua: *Turismo bulegoan*

2 Asteazkena

Salbadoretako 2. paella txapelketan izena emateko epe amaiera

Lekua: *635 201 990 telefono zenbakian (Unai)*

3 Osteguna

Getaiko zazpigarren baltsa txapelketako izen-emate amaiera

Lekua: *630 870 662 telefono zenbakian (Ion)*

Salbatore jaiak 4tik 8ra

4 Ostirala

Ume eta Gazte Eguna

Paella lehiaketa, bazkaria, jolasak, zezensuzkoa, erromeria, herriko taldeen kontzertuak...

Salbadoretako II. paella txapelketa

Ordua: *11:00*
Lekua: *Harritarte*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

- *16 urtetik gorakoentzat*
- *Paellerak eta sua Gazte Asanblak jarriko ditu.*
- *14:00etan paellek bukatuta egon behar dute. Amaitu gabeak txapelketaz kanpo geratuko dira.*

5 Larunbata

Koadrilen Eguna

Marmitako txapelketa, herri bazkaria, kantujira, bandera igoera, erromeria...

XXI. marmitako lehiaketa

Ordua: *10:00*
Parte-hartzaileek 09:15erako egon beharko dute plazan.
Antolatzailea: *Udala*

- *Taldeak bi sukaldariz osatuko dira (bat getariarra)*
- *Antolatzaileek jarriko dituzte beharrezko osagaiak, sua eta lapikoa.*
- *Banatutako osagaiak bakarrik erabili daitezke.*
- *Bakoitzak, gutxienez, 20 lagunentzako marmitakoa egin beharko du.*
- *13.00etan suak itzaliko dira.*
- *13:15ean epaimahaiak irabazleak aukeratuko ditu.*
- *Lehen sarituak 300€ jasoko ditu, bigarrenak 180€ eta hirugarrenak 120€.*
- *600 lagunentzako lekua egongo da bazkaltzeko.*
- *Uztailaren 28 eta abuztuaren 1, 2 eta 3an bazkaritarako konfirmazioa eta tiketen salmenta.*

6 Igandea

Salbatore Eguna

Meza, aurreskua, pilota txapelketetako finalak, umeentzako berbena, kontzertua, DJak, Konpartsa...

7 Astelehena

Diana, hegaluzea parrillan eta sagardoa, bertsolariak, zanpanzaharrak, Zirkoclown, DJak, Huntzaren kontzertua...

8 Asteartea

Gazteen arteko patata tortila lehiaketa, txahala, pintxo dastaketa, baltsa lasterketa, Elektrotxufla txarranga, gau tropikala txosnetan, Noa Elvis, guatekea, bandera jaitsiera...

Gazteen arteko V. patata-tortila lehiaketa

Ordua: *11:00*
Antolatzailea: *Udala*

- *14 eta 18 urte artekoentzat*
- *Antolatzaileek 4-5 patata, 6 arraultza, olioa eta gatza, eta sua emango dituzte.*
- *Parte hartzaileek eraman beharko dituzte zartagina, labana, sardexka, eta osagaiak nahasteko eta buelta emateko ontziak.*
- *12:30ean bukatuko da.*
- *Epaimahaiak kontuan hartuko du tortilaren itxura, zaporea eta sukaldarien janzkera (imaginazioa eta originaltasuna).*

Zazpigarren baltsa lasterketa

Ordua: *17:30. 17:00etan dike berriko esplanadan egon behar da.*
Antolatzailea: *GGA*

- *Baltsa bakoitzean zortzi pertsona gehienez.*
- *Gutxieneko adina 12 urte.*
- *Ibilbidea: dike berriko esplanadatik Altxerriraino urez, eta baltsarekin oinez Itsas Etxera.*
- *Baltsek eskuz eginak beharko dute.*
- *Amaitutakoan baltsak Tintaleku azpian utzi edo gorde egin behar dira.*
- *Sari-banaketa txosnetan.*

Cristobal Balenciaga Museoa

4 Ostirala

Gau irekia

Ordua: *21:00-00:00*
Museoko momentuko erakusketa gauez bisitatzeko aukera, DESCARCA LIBRE laukotearen eta DJ MAKALAren zuzeneko musikaz lagunduta.

17 Osteguna

Kantu kontari

Ordua: *18:00*
Formatu txikiko ikuskizuna, Ana Apika ipuin-kontalari eta Intxixu Valbuena gitarra-jotzailearekin. 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat.

Saiazgetaria HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

eskura
Fisioterapia zentroa
JOSUNE UCIN BERASALUCE
697961208

BABEXA
Getariako dendari elkartea

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua

Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz
tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

TAMAINAK	ZENBATEKOA
4,3 x 4	12 euro
9 x 4	24 euro
13,6 x 4	36 euro
9 x 8	48 euro
13,6 x 8	72 euro
orri erdia	96 euro

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

BIDALI ZURE DATUAK:

artzape@topagunea.com-era

Txeruko postontzira

IZEN-DEITURAK:

HELBIDEA - HERRIA - P.K:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

KONTU ZENBAKIA:

BANKETXEA:

Urtean 25€ - Getariatik kanpora bidaltzea 30€

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail:	udala@getaria.org
Kiroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Javier	607 720 242
Carlos	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
Herri Eskola	943 140 729
SOSdeiak	112
Kofradia	943 140 200

ZAINTZA

FULDAIN FARMAZIA
Abuztuaren 14tik 20ra
eta 28tik irailaren 3ra

EGUNAK

ILARGIAK

Abuztuak 7 Ilbetea

Abuztuak 15 Ilbehera

Abuztuak 21 Ilberria

Abuztuak 29 Ilgora